

HABE, IVAP, EOI IDAZLAN GAIAK (AZTERKETA OFIZIALAK):

B1 maila

1. GAIA : Asier ordenagailura itsatsita bizi da!

Egoera:

Azkenaldi honetan, zure lagun batek, Asierrek, egun osoa ematen du ordenagailuaren aurrean; ez du kalera irten nahi, ez du inorekin egon nahi... Oso kezkatuta zaude. Baduzu lagun bat. Mikel deitzen da, informatikaria da eta Berlingen bizi da. Berari idaztea erabaki duzu.



Egitekoa:

Idatz iezaiozu **mezu elektronikoa** bat Mikeli. **Azaldu** zer gertatu zaion Asierri. **Adierazi** zergatik iruditzen zaizun hain kezagarria. **Kontatu** zer egin duzun orain arte Asierri laguntzeko. **Eskatu** aholkua.

Idatzi mezu elektronikoa. Gutxienez **110 hitz** idatzi beharko dituzu.

Horrela egin ahal duzu (euskaragara.net eskema estandarra eta kolore kodea erabiliz):

Idazlan resuelto, como ejemplo (usando eskema estandar y código de colores euskaragara.net):

Iepa **Mikel**, **zer moduz zabilteza?!**

Gutun hau idazten dizut, gauza garrantzitsu batzuk azaltzeko.

[Garapena:] **Asier** nire lagun bat da. **Kontua da, berak** egun osoa ematen duela **ordenagailu aurrean**. **Ez du ezer gehiago egin nahi.** **Ez du kanpora** irten nahi, ez du inorekin egon nahi. **Horregatik**, ni oso **kezkaturta** nago.

Mikel, zu **informatikaria** zara eta ordenagailu aurrean ordu asko zaude. **Baina** zuk lagunekin erlazioa duzu eta gauza pilo bat egiten duzu, informatikaz aparte.

[Eskaera:] **Gutunean aipatu dudanagatik, hurrengoa eskatu nahi dizut:** **Asierri** zer esan eta nola esan behar diodan zuk niri **azaltzea**. **Nola animatu ahal dut berak bizitza soziala edukitzeko?** Por lo mencionado en la carta, me gustaría pedir lo siguiente: el [hacer/devolver...]

Espero dut nire azalpenak egokiak izatea. Edozein modutan, zerbait argi ez badago, esan mesedez.

Erantzunaren zain izango naiz. (115 hitz)

2. GAIA : EZUSTEKO FAKTURA

Egoera

Atzo eguerdian etxera bueltatu zinenean, gas-faktura aurkitzu zenuen postontzian: 5672,67 €. Hilabete bat duzu ordaintzeko; bestela gas-zerbitzua eten eta epaitegietara eramango zaituztela adierazten zaizu. Zuk badakizu akatsen bat dagoela; izan ere, 50 eta 150 € bitartean ordaindu dituzu beti, urte garaiaren arabera. Gas-enpresara deitu eta harrerakoak lurralde-arduradunari erreklamazio bat idazteko gomendatu dizu, zeure egoera bertan azalduz.

Egitekoa

Idatz iezaiozu erreklamazio bat enpresako arduradunari. **Azaldu** orain arteko egoera zein izan den, baita egungo egoera zein den ere. **Adierazi** zure desadostasuna. **Eskatu** kontsumoaren irakurketa berria

Idatzi erreklamazioa. Gutxienez **140 hitz** idatzi beharko dituzu.

3. GAIA: Mendizale taldea

Egoera:

Auzoko aisialdi-elkarteko kidea zara. Aurten “mendizale taldean” oso jende gutxik eman du izena. Horregatik, auzoko aldizkarian gutun bat idaztea erabaki duzu.

Egitekoa:

Kontatu nolakoak izan ziren iazko mendi-irteerak. **Azaldu** nola funtzionatuko duen mendizale-taldeak aurten. **Azaldu** talde honetan parte hartzearen abantailak. Azkenik, **anima itzazu** auzokideak mendizale-taldean parte hartzera.

Idatzi gutuna. Gutxienez, 140 hitz idatzi beharko dituzu.

4. Gaia: Zer egin ahal dugu amamarekin?

Egoera:

Zure lagun bat 80 urteko amamarekin kezkatuta dago. Amamak ez du zaharren egoitzara joan nahi; zure lagunaren etxera joan nahi du bizitzera. Zeuk ere halako kasu bat bizi izan zenuenez, aholkua

eskatu dizu. Erantzun e-posta bidez.

Eginkizuna:

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** aukera bakoitzak dituen abantailak edo eta desabantailak. **Aholkua** eman.

Idatzi e-posta. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



5. Gaia: Udan ere bertan

Egoera:

Jendea kezkatuta dago, uda heltzen denean herria hutsik geratzen delako. Guztiak kanpora joaten dira eta herria hilik dagoela ematen du. Hori dela eta, herriko aldizkarira, irakurlearen txokora, **gutun** bat idaztea erabaki duzu.



Egitekoa:

Azaldu nolakoak ziren zure txikitako udak herrian, zertan ematen zenuen denbora, norekin egoten zinen, nora joaten zinen... **Kontatu** herrian txikitari edo gaztetan pasa zenuen uda berezi bat. **Adierazi** zergatik izan zen uda hura berezia. **Proposatu** zer egin daitekeen herriko udako bizitza berpizteko. Azkenik, **animatu** jendea udan herrian geratzeko.

Idatzi gutuna. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.

6. Gaia: Ikasle-trukea

Egoera:

Institutu batean ingeles-irakaslea zara. Aurten ere Ingalaterrako ikastetxe batekin ikasle-trukea egin nahi duzue (astebetekoa). Hori dela eta, ikasleen gurasoei **gutun** bat idaztea erabaki duzu.

Egitekoa:

Kontatu iazko esperientzia nolakoa izan zen, zer egin zuten ikasleek Ingalaterran eta zer egin zuten hona etorri ziren ikasle ingelesek. **Azaldu** ikasle-trukearen onurak zein diren. **Adierazi** ingelesa jakitearen garrantzia eta **azpimarratu** zenbat aprobetxatuko luketen seme-alabek. **Informazioa eman** ikasle-trukearen programari buruz. Azkenik, **anima** itzazu gurasoak parte hartzera.

Idatzi gutuna. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.

7. GAIA : ZER ORDURA ARTE UTZI BEHAR ZAIO ATERATZEN?

Egoera :

Zure lagun bat kezkatuta dago. Ikasturte amaierako afaria dela eta, gaupasa egiteko baimena eskatu dio 16 urteko alabak. Ez daki zer egin. Zuk ere horrelako arazo bat izan zenuenez, aholkua eskatu dizu.

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia, zuk zer erabaki zenuen eta zergatik. **Azaldu** herritik kanpo baimena ematearen alde onak eta txarrak. **Azaldu** erabakia hartzeko kontuan hartu behar diren gauzak. **Aholkua** eman.

Idatzi gutun informala. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

8. GAIA: Gurasoei telebista oparitu

Egoera:

Zure lagun batek telebista bat oparitu nahi die gurasoei eta Internet bidez bigarren eskuko telebista erostea pentsatu du. Baina, zalantzan dago. Zuk iaz opari batzuk Internet bidez erosi zenituen eta horregatik zure aholkua eskatu dizu.



Egitekoa:

Kontatu zure esperientzia Interneten bidezko erosketetan. **Azaldu** Interneten erosteak dituen abantailak eta arriskuak. **Eman** zure aholkua.



EUSKARAGARA.NET

Mezu elektronikoa. Gutxienez **140 hitz** idatzi beharko dituzu.

9. GAIA: Herrian erosi


Egoera:

Zure udalak herriko dendetan kontsumoa bultzatzeko kanpaina hasi du, eta web-orri bat zabaldu, jendeak esperientziak kontatzeko. Zuk esperientzia txarra izan zenuen herriko bidai-agentzia batean. Aukera aprobetxatu nahi duzu, herriko denda horretan zer gertatu zitzaizun kontatzeko.



Egitekoa:

Azaldu zer bidai kontratatu zenuen. **Kontatu** zer gorabehera izan zenituen bidaietan. **Adierazi** zure haserrea, herrira bueltatzean bidai-agentziak emandako tratuaengatik. Azkenik, **eskatu** udalari neurriak hartzeko.



Idatzi mezua. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

10. GAIA : Apartamentua

Egoera :

euskaragara.net

Ilobak, e-posta bidez, kostaldean duzun apartamentua eskatu dizu. Laz utzi zenion, baina aurten ezin izango diozu utzi.

Egitekoa :

Adierazi ezin diozula apartamentua utzi eta **arrazoiak** eman. **Azaldu** zuk zeuk gaztetan nola pasatzen zenituen oporrak eta **proposatu** udarako planen bat.

Idatzi gutun informala. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

11. GAIA : EZIN LORIK EGIN

Egoera :

Zure lagun batek, e-posta bidez, daukan arazoa azaldu dizu. Haren auzoko tabernek zarata handia sortzen dute, eta ezin izaten du lorik egin. Ez daki zer egin. Zuk arazo bera izan zenuen..

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** hirigunean bizitzeak dituen alde onak eta txarrak. **Proposatu** irtenbideren bat.

Idatzi e-posta. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

12. GAIA : TXAKURRA, OPARI?

Egoera :

Baionako lagun batek, e-posta bidez, daukan arazoa azaldu dizu. Bederatzi urteko alabak txakur bat nahi du urtebetetzerako. Ez daki zer egin. Zuk arazo bera izan zenuen semearekin.

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** txakur bat etxean edukitzeak dauzkan alde onak eta txarrak. **Eman** aholkua.

Idatzi e-posta. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.



13. GAIA : Gidabaimena

Egoera:

Zure lagun batek, e-posta bidez, daukan zalantza azaldu dizu. Haren alabak selektibitate-azterketa gaintitu du, eta gidabaimena ateratzeko ikastaroa eskatu dio opari bezala. Zure lagunak ez daki zer egin. Zuk zalantza bera izan zenuen zure alabarekin.



Egitekoa:

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** 18 urterekin gidabaimena ateratzearen abantailak eta arriskuak. **Eman** aholkua.

Idatzi e-posta. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

14. GAIA: Lanpostua atzerrian

Egoera:

Zure lagun batek, e-posta bidez, daukan zalantza azaldu dizu. Lanpostu bat eskaini diote Kanadan. Zure lagunak ez daki zer egin. Zuk zalantza bera izan zenuen lan egitera kanpora joan zinenean.



Egitekoa:

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** horrelako aukeren abantailak eta desabantailak. **Eman** aholkua.

Idatzi e-posta. Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

15. GAIA : B1euskara-agiria atera behar

Egoera:

Zure lagun batek, e-posta bidez, daukan zalantza azaldu dizu: HABEren B1 euskara-agiria atera behar du. Ez daki ez non, ez nola ikasi: euskaltegi batean, barnetegi batean, autoikaskuntza- ikastaro batean izena eman, ... Zu iaz euskara-ikaslea izan zinen.



Egitekoa:

Kontatu zeure esperientzia. **Azaldu** zeure ikas-prozesuan izandako alderdi onak eta zailtasunak. **Eman** aholkua.

Idatzi erantzuna (mezu elektronikoa edo gutuna pertsonala?)
Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

16. GAIA : Tabernari!

Egoera:

Zure lagun batek, e-posta bidez, duen zalantza azaldu dizu: taberna batean lanean hasteko aukera du. Ez daki zer egin: lanpostua onartu ala ez. Zuk taberna batean lan egin zenuen.



Egitekoa:

Kontatu zeure esperientzia tabernari bezala. **Azaldu** taberna batean lan egiteak dituen alde onak eta txarrak. **Eman** aholkua.

Idatzi erantzuna (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala) Gutxienez, **140 hitz** idatzi behar dituzu.

17. GAIA : Facebook bidezko gonbidapena

Egoera :

Lagun batek daukan arazoa azaldu dizu: facebook-eko lagunetako batek afari batera gonbidatu du. Zure lagunak ez daki zer egin. Zuk antzeko arazoa izan zenuen duela urte batzuk.

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** lagunak sare sozialetan egiteak dituen abantailak eta arriskuak. **Aholkua eman**



Idatziz erantzuna (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi beharko dituzu.

18.GAIA : Lagun desegokiak

Egoera :

Lagun batek daukan arazoa azaldu dizu. Haren semea/alaba lagun-talde berri batekin hasi da ateratzen. Neska-mutil horiek ez zaizkio gustatzen. Arazoetan sartuta ibiltzen dira beti. Lagunak ez daki zer egin. Zuk antzeko arazoa izan zenuen zure alabarekin.

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** zergatik den garrantzitsua lagunaren arteko giroa. **Aholkua eman**.



Idatzi erantzuna (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi beharko dituzu.

19. GAIA : Etxeko lanak

Egoera :

Lagun batek daukan arazoa azaldu dizu: haren pisukideak etxeko lanak egitea gorrotatzen du. Ez ditu egin nahi. Beti jartzen du etxean ez laguntzeko aitzakiaren bat. Lagunak ez daki zer egin. Zuk antzeko arazoa izan zenuen zure pisuan



Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** etxeko lanak banatzeak elkarbizitzarako duen garrantzia. **Aholkua eman**.

Idatzi erantzuna (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi beharko dituzu.



EUSKARAGARA.NET

20.GAIA : Opor-bidaia eta bidaia-agentzia

Egoera :

Lagun batek daukan arazoa azaldu dizu: haren azken opor-bidaian gauzak ez ziren atera programan azaltzen ziren bezala. Bidaia-agentziak ez dio erantzuten. Lagunak ez daki zer egin. Zuk antzeko arazoa izan zenuen iazko oporretan.

Egitekoa :

Kontatu zure esperientzia. **Azaldu** bidaiak agentzia bidez egiteak dituen alde onak eta txarrak. **Aholkua eman**.

Idatzi erantzuna (mezu elektronikoa edo gutun pertsonala). Gutxienez, **140** hitz idatzi beharko dituzu.

